


Ji0rokó06HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

Enpresarean

INFORMAZIO OROKORRA

DATA:2016/05/23

1 **Izena** Enpresarean (Enpresa eta profesionalen sarea)



2 **Hizkuntza** EUSKARA

3 **Lan-arloa** (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)

SOZIOEKONOMIA

4 **Kontakturako helbidea edo telefonoa**

info@enpresarean.eus
 +34 943 592148 +34 673 811048 +33 0559255041
GIPUZKOA: Andoain -> [Martin Ugalde Kultur Parkea. Gudarien etorbidea z.g. 20140](#)

IPAR EUSKAL HERRIA: Baiona -> 1, Arsenal Plaza. 64100. Tel: +33 0559255041

ARABA: Gasteiz -> Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1. Panama, z.g. 01012

BIZKAIA: Bilbo -> Luzarra 10, 2-1. 48014

NAFARROA: Iruñea -> Martzelo Zelaieta, 75; U3 eraikina, 13. bulegoa. 31014



5

**Sare sozialetako
kontaktuak** (Webgunea,
Facebook, Twitter...)

<http://enpresarean.eus/>

TWITTER: <https://twitter.com/enpresarean>

FACEBOOK: <https://www.facebook.com/enpresarean/>

YOUTUBE:

<https://www.youtube.com/playlist?list=PLTMLZiuNWe728g6ovLkA9JzqSApSdXyQz>

FLICKR: <https://www.flickr.com/photos/baieuskarari/collections/72157668723240736/>

RSS: <http://www.enpresarean.eus/berriak/rss>

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA



1 Praktikaren azalpena

ENPRESAREAN 2010ean sortutako proiektu bat da, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak lideratzen duena. 2012an jauzi kualitatiboa eman zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari esker¹. Horren bitartez, **euskaraz lan egiten duten eta produktu zein zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresen eta profesionalen arteko lehen azoka egin zen 2012ko urriaren 2an**, Donostiako Kursaal Jauregian, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak antolatuta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Arabako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Kutxa Gizarte Ekintzak lagundu zuten.

[<http://www.ENPRESAREAN.eus/info/ikusi/azoka-2012/azoka-zerda>]



Azokaren helburu nagusia izan zen arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresen artean elkarlana sustatzea, esperientziak trukitzea eta hornitzaile berriak aurkitzea. Hala, azokan euskaraz lan egiten duten enpresak eta euren produktu edo zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituztenak bildu ziren, elkarren arteko harremanak estutu, elkarlanerako bideak aztertu eta negozio bide berriak zabaltzeko asmoz.

2013an, Garaia Berrikuntza Zentroan, negozioak egiteko bilera azkarren saioa burutu zen. Euskaraz lan egiten duten edo-eta produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresa eta profesionalak aukera izan zuten, hitzordu azkarren bitartez, *fastdating* teknika erabilia, 10 minutuz elkarrekin mintzatzeko, bakoitzaren beharrei eta eskaintzei buruz. “**ENPRESAREAN 2013**” jardunaldiaren xedea proiektu enpresarial berriak sortzen laguntzea izan zen, euskaratik eta euskaraz.

[<http://www.enpresarean.eus/info/ikusi/jardunaldia-2013/multimedia>]

2014an, etorkizuneko erronkei aurre egiteko bideak irudikatu

¹ <http://www.enpresarean.eus/berriak/ikusi/2012-06-21/hitzarmena>

zituen ENPRESAREANek Kursaalen.
Euskal Herriko enpresen etorkizuneko erronken inguruko mahai-
ingurua egin zen eta bertan izan ziren Gaindegiako Imanol Esnaola,
Laboral Kutxako Josu Arraiza, Azaro Fundazioko eta Lea-Artibai
Garapen Agentziako Ainara Basurko, ADEGIko Xabier de la Maza eta
Jean-Louis Haringardoquy, Ipar Euskal Herriko Hemen elkarte
ekonomikoko zuzendaria. Guztiek bat egin zuten hausnarketan eta
etorkizunera begira bidaia-orri antzekoa idatzi zuten:
“lehiakortasuna sustatzeko elkarlana berrikuntzan eta kalitatezko
zerbitzuetan”.



Bigarren mahai inguruan komertzio elektronikoa izan zen mintzagai, eta beste bost lagun aritu ziren mahaiaren bueltan. Jabi Asurmendi (Bitarlan), Gari Araolaza (CodeSyntax), Iruri Knörr (Nolatan, Ideateca, Ludei), Arkaitz Sukuntza (Ttalaka) eta Mikel Aranburu (Euskal Herriko Plaza). Salmenta elektronikoaren esparru zabala aztertu zuten, zerbitzu zein produktuen salmenta, abantailak eta eragozpenak, saldu osteko zerbitzua...

Arin-arin formatuan 15 enpresak euren proiektuak aurkeztu zituzten. Askotariko sektoreetako ordezkariak izan zen taula gainean. Komunikazioa, industria, eraikuntza, hezkuntza, hizkuntza... eta oro har, oso formatu dibertigarri eta berritzailean, hiru minutuko saioretan euren burua aurkeztu zuten. *3D printing*-eko aurkezpen bat ere egin zuen Mikel Arbeloa iruñearrak eta eredu arrakastatsuenen atalean, Aner Garmendiak, Egamaster enpresa gasteztarraren esperientzia azaldu zuen. Gainera, Donostia Sustapeneko Ainhoa Aldasorok bere erakundea aurkeztu zuen.

Saioari amaiera emateko formazioaz eta bere beharraz aritu ziren, Deustuko, Mondragon Unibertsitateko, Euskal Herriko Unibertsitateko eta HETEL erakundeetako ordezkariak. Nolakoak behar du izan etorkizuneko ikasleak? Enpresan moldagarria eta irekia pentsaera eta egiteko eratan. Hori omen da etorkizuna.

[\[http://www.enpresarean.eus/info/ikusi/azoka-2014/multimedia\]](http://www.enpresarean.eus/info/ikusi/azoka-2014/multimedia)

2015eko berrikuntza **Enpresaren Foroa** izan zen. Enpresaren FOROen bidez, maiztasuna handitu eta eremu geografikoa zabaldu nahi izan dugu, Euskal Herri osoan egoteko eta, topaketa izateaz gain, enpresa ikuspuntutik zerbait ikasteko aukera ere eskaini nahi dugu. **Enpresen eta profesionalen arteko hausnarketa eta elkarrekintzarako gune bat da.** Enpresaren FOROaren formula da aditu bat(zu)en eskutik (gosari-)hitzaldi bat eskaintzea, ideiak eta hausnarketak partekatzen lagunduko duena, eta ondoren elkarlana bideratzeko topagunea.

2015ean FORO hauek egin ziren:

Enpresaren Foroa: 2015-07-16. [Enpresaren Foroaren lehen hitzaldia](#) **David Sánchez Bote** MIKeko Zuzendari Nagusiak egin zuen **Irungo Ficoban**. Sánchezek nabarmendu zuen globalizazioaren garaian “produktu globalak baino, enpresa globalak behar” ditugula. Horretarako “elkarlana” behar dugula zehaztu zuen.



[Enpresaren Foroa: 2015-09-30](#) **Itziar Galdos, Gasteizko Europa jauregian:** "Bost milioi euroko itzulera ekonomikoa du Gasteizko triathloiak Araban"



Enpresaren Foroaren hirugarren saioa Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean egin zen **Joseba Barandiaran ekonomialariarekin.** [Enpresaren Foroa: 2015-10-22](#)



Enpresarean proiektuaren zati bat da foroa². Enpresen eta profesionalen arteko hausnarketa eta elkarrekintzarako gune bat da. Foroaren formula da aditu bat(zu)en eskutik (gosari-)hitzaldi bat eskaintzea, ideiak eta hausnarketak partekatzen lagunduko duena, eta ondoren elkarlana bideratzeko topagunea. Enpresarean Foroen bidez, enpresen eta profesionalen arteko harremanen maiztasuna handitu eta eremu geografikoa zabaldu nahi dugu, Euskal Herri osoan egoteko eta, topaketa izateaz gain, enpresa ikuspuntutik zerbait ikasteko aukera ere eskaini nahi dugu.

Urtarrilaren 19an, 2016ko lehenengo foroa burutu da, Zamudioko Teknologia Elkartegian, [Alex Gibelalderekin](#).

enpresarean FOROA 2016
 SOLASALDIA - GOSARIA
 EZTABAIDA-GUNEA

Posta mugatuta, izena emateko, enpresarean.eus/#foroa

ALEX GIBELALDE
 (Boostit enpresaren sortzailea eta Marketing zuzendari ohia Twitterren)
 Nola hobe ditzaitez nire enpresako emaitzak sare sozialak erabiliz?

Noiz: Urtarrilak 19
 Lekua: Zamudioko Teknologia parkean (eraikin nagusian)
 Orduak: 9:00 - 11:00

www.enpresarean.eus | www.baieuskarari.eus | LABORAL Kutxa | Gipuzkoako Foru Aldundia

Asmoa da **proiektu aktiboagoa** izatea, urtean zehar hainbat elkargune eskainiko dituen.

Enpresarean proiektuarekin aurrera segituko dugu. 2016an azokaren hirugarren edizioa egingo da. Azoka antolatzeaz gain, proiektua sendotzeko lan egingo dugu. Enpresarean Foroak antolatzen segituko dugu, Gipuzkoan eta Gipuzkoatik kanpo ere eta, horretarako, lankidetzak landuko dira alor sozioekonomikoan aritzen diren erakundeekin. Era berean, Araban ere [Arabian Euskara lanean](#) ekimena ari da Ziurtagiriaren Elkarteak garatzen Enpresarean-en barruan.

Ildo honen definizioan, aintzat hartu behar da 2013ko ekainaren 13an Arrasaten burutu zen *Lan Mundua Euskalduntzeko*

² <http://enpresarean.eus/info/ikusi/ekitaldiak/enpresarean-foroa>



Konferentzia. Bertan, lan mundua osatzen duten aktoreen (enpresa traktoreak, kontsumitzaileak, langileak/ sindikatuak, instituzioak) egitekoak proposatu ziren, guztien arteko adostasunean oinarriturik. Bakoitzak bere egiteko espezifikoa izan arren, lan mundua euskalduntzeko beharrezkoa izango da adostasunak eraikitzea eta bide berean urratsak egitea. Eragile sozioekonomikoak hizkuntza-normalizaziorako agente bihurtu behar dira, eta ildo horretan, urratsak egin nahi ditu Ziurtagiriaren Elkarateak.

Euskaraz lan egiten duten eta produktuak edo-eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresa eta profesionalen arteko sarea landu eta dinamizatu behar da. "Lan mundua euskalduntzeko Konferentzia"n aipatu zen "Enpresen sarea" sortu eta egituratu behar dela. Dinamizatu behar da, euskararen balioa mahai gainean jarritz. Zerbitzu osagarriak eskaini behar dira, euskaraz lan egiteari begirakoak elkarlanen, elkarriketen eta dinamiken bidez. Horretarako, Ziurtagiriaren Elkarateak dinamizatzaile papera hartu behar du.



Praktikaren azalpenaren laburpena

ENPRESAREAN 2010ean sortutako proiektu bat da, [Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea](#)k lideratzen duena. Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi da Enpresarean proiektuaren bidez. Bi urtean behin antolatzen den Enpresarean azoka, Enpresarean Foroa hitzaldigosariak eta Enpresarean.eus webgunea dira egitasmoaren ardatz.

Elkarlana

Enpresareanen helburua da arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresen eta profesionalen artean elkarlana sustatzea, esperientziak zein jakintza trukatzeko eta hornitzaile berriak aurkitzeko. Hori guztia, baina, euskara elementu komuntzat duten enpresa, elkarte eta entitateen artean.

Negoio aukerak

Era berean, Enpresareanen bitartez, enpresei eta profesionali negozio aukerak handitu nahi zaizkie eta produktu / zerbitzu berriak sortu nahi dira, euskaratik eta euskaraz.

Horrez gain, euskaraz lan egin nahi duten edo-eta zerbitzua euskaraz eskaini nahi duten organizazioei eta profesionali erraztasunak eman nahi zaizkie eta salmentarako gune bat eskaini.

Komunitatea

Enpresarean Azokan edo Enpresarean Foroaren hitzaldietan egingo dugu topo, izango dugu elkarren berri, esperientziak trukatuko ditugu, baina urte osoan Enpresarean.eus-eko komunitatean ere parte har dezakezu zure proiektu eta egitasmoen berri emateko.



3

Aurrekariak

(Inplementazioa
burutzeko motibazioa,
identifikaturiko beharrak)

Enpresa munduan elkarlanerako joera igartzen ari da; elkar ezagutzeko eta haien arteko elkarlana sustatzeko saiakerak egiten ari dira. Hortik, mota askotariko ekimenak edo proiektuak sortu dira, enpresen arteko elkarlanaren eta lankidetzaren arrakasta kasuak, alegia. Izan ere, oso aberasgarria da elkar ezagutzea, beharrak identifikatzea, bakoitzak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak ezagutaraztea, eta esperientziak zein jakintzak partekatzea.

Askotan, ez da ezagutzen produktu edo zerbitzu zehatz bat euskaraz ematen duen enpresarik eta, zerbitzu edo produktu hori euskaraz jaso nahi izanez gero, euskaraz lan egiten ohituta ez dagoen enpresa batera jo ohi da... eta batzuetan, beranduago konturatzen gara badela zerbitzu edo produktu hori euskaraz eskaintzen duen enpresarik...

Hori guztia kontuan izanda, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak, Enpresarean proiektuaren bidez, euskaraz lan egiten duten edo lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi ditu.

4

Helburuak

- 1) Euskaraz lan egiten duten edo-eta zerbitzuak eta produktuak euskaraz eskaini nahi dituzten profesionalen eta organizazioen azoka antolatzea eta elkargunea izatea.
- 2) Euskaraz lan egin nahi duten edo-eta zerbitzua euskaraz eskaini nahi duten organizazioei/ profesionali erraztasunak ematea, eta euskarazko zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten entitateei/ profesionali negozio-aukerak handitzea eta salmentarako gune bat eskaintzea.
- 3) ENPRESAREAN FOROA sustatzea. ENPRESAREAN proiektua esparru berrietara zabaltzea eta ezagutaraztea.
- 4) Proiektua Gipuzkoatik kanpora zabaltzeko urratsak egitea.
- 5) Enpresen/ profesionalen artean baliabideak, esperientziak eta jakintzak partekatzea; elkarlana sustatzea.
- 6) Proiektu/zerbitzu berriak sustatzea, euskaratik eta euskaraz.
- 7) Euskararen prestigio soziala areagotzea.



5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	2012an jauzi kualitatiboa eman zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari esker ³ . Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Laboral Kutxaren babesa azpimarratu behar da. Eta urte hauetan zehar honakoek lagundu izan dute: Arabako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Arrasateko Udala, Kutxa Gizarte Ekintza eta Orona Fundazioa.
7	Inplementazio-epea	Enpresarean 2010etik ari da garatzen. Urte hauetan azpiproiektu berriak sortu izan dira. Azkena, Enpresarean Foroa izan da, 2015ean.

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek 8 pertsonen osatutako ekipoa du, Elkartearen proiektuen kudeaketaz arduratzeko
10	Lortutako emaitzak	Urte hauetan arlo sozioekonomikoan mugarri asko jarri ditugu Euskal Herri osoan, ekintzaileak izan gara, tresna eragingarriak eta proiektu ausartak sortu eta abiatu ditugu (Enpresarean , Lansarean ...) eta beste proiektu batzuk martxan jartzeko eragin dugu: <i>Lazarraga Sariak</i> , <i>Lanabes – Araban Euskara Lanean</i> , etab. Horrek guztiak merezi izan du, baina bidea egiten jarraituko dugu, Euskal Herriko gizartearentzat balioa eta aberastasuna sortzen segitzeko, gizartearen ongizatea areagotzeko. Ekarpena egiten ari gara Euskal Herriaren garapenean. Eta bada garaia hau dena aintzat hartzeko eta behar bezala aitortzeko, jakin behar baitugu urte hauetako lorpenak, ikasgaiak eta metatutako aberastasuna babesten eta etorkizunerako baliatzen.

³ <http://www.enpresarean.eus/berriak/ikusi/2012-06-21/hitzarmena>



- Enpresareanen barruan, bi azoka antolatu dira. Sarean daude eduki guztiak:
http://enpresarean.eus/info/ikusi/ekitaldiak/azokak_2016an_azokaren_3. edizioa burutuko da.
- 2013an, jardunaldi bat:
<http://enpresarean.eus/info/ikusi/jardunaldiak/jardunaldia-2013>
- Enpresarean Foroa ere abiatu zen 2015ean. Hemen orain arte egindako guztiak:
<http://enpresarean.eus/info/ikusi/ekitaldiak/enpresarean-foroa>

Araban Euskara lanean proiektua sortzeko eragin dugu:

<http://enpresarean.eus/info/ikusi/ekitaldiak/araban-euskara-lanean>

<http://enpresarean.eus/>

11 Dokumentazioa
erreferentziazko
materiala

12 Aurkezpen bideoa

<https://youtu.be/bTcQooSqNYQ>

13 Intereseko informazio
gehigarrik

